

Hitza zizel

Itxuraz, zerikusirik ez duten bi errealtate uztartzen ditu Hitza zizel erakusketak. Eskultura eta liburua; hitza eta erreminta. Nola hurbildu liburuen esparrura espazio-denbora ikuspegitik? Zein da eskulturak duen kontatzeko moldea? Zein, liburuak bere baitan gordetzen duen materiaren sekretua? Eskulturen kabi ote liburua? Istorioen hari ote eskultura? Poesia egur egina...

Erakusketa hasieran, bada Manolo Valdésen obra bat, Librería. Liburuak apaletan lerro-lerro. Liburuei begira burura etorri zait galdera: zein da norbaitek profanatu zain bizi den liburutegi isilaren sekretua? Borgesek unibertsoarekin konparatzen zuen liburutegia, eta horren inguruko gogoeta sorta eder bat utzi zigun La biblioteca de Babel ipuinean. Baina, demagun, unibertso horren galeria hexagonaletan paperez ez eta egurrez, burdinez, terrakotaz eta buztinez eginak daudela liburuak. Orotariko liburuak: Knowledge serieak, gauza harrigarrien liburua, erretaulak, Otto dix seriea, Lurra M-35, liburu hieroglifikoak, Tumbler 's book, liburu tronpeta txikia, zerbaiten iturri edo iturri bera... Eta idazleen lekuan, zizelkatzaileak: Spinner, Salma El Mousfí, Kozu, Anthony Caro, Chillida, Oteiza, Koldobika Jauregi.

Eskutan hartzeko liburu handi samarrak. Gutxi batzuk lotsagabeki irekiak badaude ere, gehienak liburu itxiak edo erdizka irekiak dira. Profanatu gabeko lur, irudimen pizgarri. Liburutegietan kabitzen ez diren liburu, baina bai gure buruko galeria hexagonaletan.

Eta horretan datza proposamena. Zizelaren bidez hitza isiltzea, baina ez esanahia. Bestela esanda, liburuen espazio eta mugak adarkatu eta liburu beraren esanahia zalantzan jartzea, unibertsoa ikusten ez den zerbaitekin lotuz.

Eta, hala ere, ikusi ez arren, irudikatzeko hegoak eskaintzea. Hegoak edonorako, gure burua biderkatzeko. Horixe liburuaren sakramentua: bidean jartzen gaituela. Eta gauza jakina da bekatua ez dela ez iristea, ez abiatzea baizik.